



Gizarte Politikako Departamentuko Ikuskapeneko, Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzuaren txostena akats zuzenketak egiteko

TXARA I ERAIKINA BERRITZEKO PROIEKTUA ETA BESTELAKO AZTERKETA TEKNIKO OSAGARRIAK IDAZTEKO ETA LANEN ZUZENDARITZA AURRERA ERAMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA (espdte. zkia. 2019/00032)

Aipatu espedienteko baldintza administratibo berezietako agirian, eta espedientea onetsi zuen 2019ko maiatzaren 14ko Diputatuen Kontseiluko Erabakian akatsak atzeman dira, eta hori dela eta, Zerbitzu honek euren zuzenketa eskatzeko idatzi eta sinatzen du txosten hau.

Lehenengo.- Baldintza administratibo berezietako agiriko 15.5 atalean, "ingurumen-kudeaketari eta kalitate-bermeari buruzko arauak betetzen direla ziurtatzea" deritzon atalean, "BAI" laukia aukeratuta agertzen da, eta lizitatzaillei ISO 9000:2015 kalitate-ziurtagiria aurkeztea eskatzen zaie. Gipuzkoako Foru Aldundiko Arkitektura Zerbitzuaren partez jasotako aholkularitzaren ondorio bezala, lizitatzailleen konpetentzia askatasuna eta segurtasun juridikoa printzipioak bermatzeko asmoarekin, atal honetan "EZ" laukitxoak egon beharko luke aukeratuta, hortaz, lizitatzailleek ez dute ingurumen-kudeaketari eta kalitate-bermeari buruzko ziurtagirik aurkeztu beharko.

Bigarren.- Kontratu honek eragindako eginkizunak bete ahal izateko onartutako aurrekontuko kontu sailaren kodean eta konpromisoari buruzko kontu sailaren kodean transkripzio akatsak topatu dira, bai baldintza administratibo berezietako agirian, baita lizitazio espediente hau onetsi zuen 2019ko maiatzaren 14ko Diputatuen Kontseiluko Erabakian ere. Hauek dira aurrekontuko kontu sailaren eta konpromisoari buruzko kontu sailaren erreferentzia egokiak:

1.0820.210.610.04.03-2019
5.0820.210.610.04.03-2020
5.0820.210.610.04.03-2021
5.0820.210.610.04.03-2022
5.0820.210.610.04.03-2023

Akats hauen zuzenketa eskatzeko eta sortu behar dituen ondorioak sortu ditzan txosten hau sinatzen dut Donostian, 2019ko ekainaren 13an.

Sin. Aitor Rodríguez-Anabitarte Aizpeolea
Ikuskapeneko, Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzuburua